

HITZARMENA	CONVENIO
ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA eta ZUBI ONDO XAKE TALDEAren ARTEKOA	ENTRE EL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE ELGOIBAR Y ZUBI ONDO XAKE TALDEA
TRINITATE JAIETAKO XAKE TXAPELKETA DIRUZ LAGUNTZEKO	CAMPEONATO DE AJEDREZ DE TRINIDADES
BILDURIK	REUNIDOS
Alde batetik , IÑIGO LOIOLA GARATE, Elgoibarko UDAL KIROL PATRONATUKO lehendakaria, beronen izenean eta Udal Kirol Patronatuaren ordezkari gisa, eta horretarako behar bezala ahalmenak dituena.	De una parte, IÑIGO LOIOLA GARATE, presidente del Patronato Municipal de Deportes de Elgoibar en representación del mismo y en plena posesión de sus facultades.
Eta bestetik MIKEL LEON REINARES, 72.313.092-B NAN zenbakiduna, adinez nagusia, ZUBI ONDO XAKE TALDEAren izenean eta horren ordezkari gisa.	Por otra parte, MIKEL LEON REINARES, con DNI nº 72.313.092-B, mayor de edad y en representación de ZUBI ONDO XAKE TALDEA
Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta honako hau	Ambas partes se reconocen mutuamente competencia y capacidad para firmar el presente convenio, y a tal efecto
ADIERAZTEN DUTE:	MANIFIESTAN
ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUAK, TRINITATE JAIETAKO XAKE TXAPELKETA ekintza(k) antolatzeko laguntza eman nahi duela.	Que el PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE ELGOIBAR, tiene disposición de financiar económicamente CAMPEONATO DE AJEDREZ DE TRINIDADES.
Hortaz, ZUBI ONDO XAKE TALDEA(e)k, TRINITATE JAIETAKO XAKE TXAPELKETA antolatzeko egiten duen ahaleginari laguntzeko, honako hitzarmen hau sinatzen dute jarraian zehaztuko diren baldintzen arabera:	En consecuencia, y con el fin de contribuir al esfuerzo de ZUBI ONDO XAKE TALDEA, para la organización de CAMPEONATO DE AJEDREZ DE TRINIDADES, suscriben el presente convenio en los términos que a continuación se detallan:
BALDINTZAK	CONDICIONES
Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da ZUBI ONDO XAKE TALDEA(e)k, 2023 ekitaldian, TRINITATE JAIETAKO XAKE TXAPELKETA ekintzak bideratzeko UDAL KIROL PATRONATUAK emango dituen dirulaguntzak arautzea.	Primera: el objeto del presente convenio es la regulación de la subvención que concederá el PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES a ZUBI ONDO XAKE TALDEA para organizar el CAMPEONATO DE AJEDREZ DE TRINIDADES.
Bigarrena: Hitzarmen honen bitartez, ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUAK (aurrerantzean, PATRONATUA) dirulaguntza emango dio ZUBI ONDO XAKE TALDEAri	Segunda: mediante este convenio, EL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE ELGOIBAR (en adelante el PATRONATO) concede una subvención a ZUBI ONDO XAKE

ondoren zehaztuko diren ekintzak bideratu ahal izateko. ZUBI ONDO XAKE TALDEAK, berriz, hitz ematen du bere egitasmoa hitzarmen honetan jasotakoaren arabera burutuko duela.	TALDEA. ZUBI ONDO XAKE TALDEA por su parte, se compromete a llevar a cabo su proyecto de acuerdo con lo recogido en el presente convenio.
Hirugarrena: Hona hemen PATRONATUAK diruz lagunduko duen ekintza edo jarduera: TRINITATE JAIETAKO XAKE TXAPELKETA	Tercera: el Patronato subvencionará la siguiente actividad: CAMPEONATO DE AJEDREZ DE TRINIDADES
Laugarrena: Dirulaguntza hau PATRONATUAK 2023 urterako indarrean duen aurrekontuko 1.0101.481.341.00.09 zenbakidun partidatik 2.000,00 € koa izango da.	Cuarta: esta subvención es de 2.000,00 € y corresponde a la partida 1.0101.481.341.00.09 del presupuesto del Patronato vigente para el año 2023.
Bosgarrena: PATRONATUAK bi alditan ordainduko dio dirulaguntza ZUBI ONDO XAKE TALDEARI, %90 hitzarmen hau sinatzen den unean.	Quinta: el abono de la subvención por parte del Patronato a ZUBI ONDO XAKE TALDEA se realizará en dos pagos. 90% a la firma de este convenio.
Beste %10, dirulaguntza justifikatzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztu eta hilabeteko epean egingo da.	La entrega del 10% restante, se realizará en el plazo de un mes desde la presentación de la documentación necesaria para la justificación de la subvención.
Dirulaguntzaren zenbatekoa jaso ahal izateko, ZUBI ONDO XAKE TALDEA eskumena duen Udaleko organoaren aurrean egiaztatu egin beharko du Udalak onartutako dirulaguntzagai diren jarduerak edo proiektuak egin dituela, eta emandako zenbateko osoa erabili duela jarduerak edo proiektuak egiteko. Horretarako, ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko ditu <u>era elektronikoan 2023ko abenduaren 20 bitartean:</u>	Para percibir el importe de la subvención, ZUBI ONDO XAKE TALDEA deberá acreditar ante el órgano municipal competente la realización de las actividades o proyectos objeto de subvención aprobados por el Patronato, así como el destino de la totalidad del importe concedido a la realización de las actividades o proyectos. Para ello, deberá presentar <u>de forma electrónica hasta el 20 de diciembre de 2023</u> la siguiente documentación:
Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak: - Jardueraren edo proiektuaren garapena azaltzeko memoria, genero ikuspegia txertaturik (datuak sexuaren arabera bereizita azaldu beharko dira eta hizkuntza ez sexista erabiltzea bermatuko da). Memoria honetan arlo bakoitzeko helburuak betetzeko abian jarritako ekintzen berri emango da, hala nola helmena eta ebaluaketa. - Egindako gastua egiaztatuko duten fakturak eta ordainketa egin izanaren agiriak. Alde horretatik, onartezinak izango dira legez ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten fakturak. - Diru-sarreraren eta gastuen behin betiko	La documentación a presentar es la siguiente: - Memoria explicativa del desarrollo de la actividad o proyecto, con inclusión de la perspectiva de género (los datos deberán estar desagregados por sexo y se garantizará un uso no sexista del lenguaje). En esta memoria se dará cuenta de las acciones puestas en marcha para el cumplimiento de los objetivos de cada área, así como su alcance y evaluación. - Facturas justificativas del gasto realizado y justificantes del pago realizado. En este sentido, no se admitirán las facturas que no cumplan los requisitos legalmente establecidos. - Liquidación definitiva de gastos e

likidazioa, eta hasieran aurkeztutako aurrekontuaren eta behin betikoaren arteko aldeen arrazoiak. - Egindako lana egiaztatzeko edo horren lekuko baliagarria izango den dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa (liburuxka, kartel, idatzi, argazki, bideo...). Dokumentazioan argi ikusteko moduan adierazi beharko da Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela jarduera hori, eta horretarako, Udalaz gain, beste erakunde baten laguntza jaso bada ere berdin jokatuko da. - Aitorpen erantzule bat dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko debekua ezartzen duten kausaren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko. - Zinpeko aitorpena. Hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein erakunde pribatu edo norbanakoren baten dirulaguntzak edota ordainketak jaso badira, gurasoen aportazioa barne, ZUBI ONDO XAKE TALDEA horren berri eman beharko da	ingresos y justificación de las diferencias entre el presupuesto inicialmente presentado y el definitivo. - Documentación gráfica o audiovisual (folletos, carteles, escritos, videos fotográficos...) que acredite el trabajo realizado o que sirva de testimonio. En la documentación se deberá hacer constar claramente que la actividad ha sido subvencionada por el Patronato, para lo cual se procederá de igual manera en el caso de que se haya recibido ayuda de otra entidad, además del Patronato. - Declaración responsable de no hallarse incurso en ninguna de las causas de prohibición para obtener la condición de beneficiario de subvenciones establecidas en el artículo 11 de la Ley 38/2003, General de subvenciones. - Declaración jurada. En ella se indicarán las subvenciones solicitadas a otras entidades u organismos o concedidas por otras entidades, así como las fuentes de ingresos procedentes de vías privadas, incluidos los pagos realizados por las y los estudiantes.
Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, NISAren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, TRINITATE JAIETAKO XAKE TXAPELKETA egitasmoa burutzen duten kirol elkarteetako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.	El Patronato Municipal de Deportes de Elgoibar, mediante el Nodo de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención destinada a CAMPEONATO DE AJEDREZ DE TRINIDADES, para que se llevan a cabo las actividades y actuaciones programadas. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes
Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak,	El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos

edo interesdunak aurretik edozein administrazioari emandakoak. Era berean, 40/2015 Legearen 155. Artikuluak adierazten duena gogora ekarri, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.	por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona o entidad interesada a cualquier Administración. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos a la ciudadanía que obren en poder de éstas.
Horren haritik, Elgoibarko Udal KiroL Patronatuak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu hitzarmen honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez: • GIZARTE SEGURANTZAK: Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria. • ALDUNDIAK: Foru Ogasunetikiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria. • ELGOIBARKO UDALAK: Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.	En este sentido, el Patronato va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE: • SEGURIDAD SOCIAL: certificado de estar al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social. • DIPUTACIONES FORALES: certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con las Haciendas Forales. • AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR: el Ayuntamiento comprobará de oficio el cumplimiento de las obligaciones contraídas con el Ayuntamiento.
Seigarrena: Hitzarmen hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2023ko abenduaren 20 arte iraungo du.	Sexta: el presente Convenio entrará en vigor en el momento de su firma y mantendrá su vigencia hasta el 20 de diciembre de 2023.
Zazpigarrena: ZUBI ONDO XAKE TALDEAK, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu: 1. Dirulaguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du. Hitzarmenean aurreikusitako egitasmoa osotasunean gauzatu eta zuritu beharko du. 2. ZUBI ONDO XAKE TALDEAK eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du, laguntzaren xedearen fiskalizazio-funtzioak betetze aldera. 3. Era berean, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein pribaturen baten dirulaguntzak jaso badira, ZUBI ONDO XAKE TALDEAK horren berri eman beharko dio PATRONATUARI. 4. Ekintzen publizitatea egiteko erabiliko diren euskarrietan Patronatuaren babesletza adieraztea Patronatuaren eta	Séptima: ZUBI ONDO XAKE TALDEA, como beneficiaria de la subvención, deberá cumplir con las siguientes obligaciones: 1. Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida. Ejecutar y justificar la totalidad del objeto de la subvención. 2. ZUBI ONDO XAKE TALDEA deberá facilitar cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de la ayuda. 3. Asimismo, ZUBI ONDO XAKE TALDEA deberá comunicar al Patronato la obtención de subvenciones y/o pagos, para la realización de las actividades especificadas en el presente convenio, procedentes de cualquier otra institución pública o privada o individual. 4. Hacer constar el patrocinio del Patronato en los soportes que se vayan a utilizar con los logos del Patronato y del

Udalaren logoak jarrita, eta albisteetan Elgoibarko Udalak diruz lagundu duela adierazita. 5. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jarduerak sustatzeko egiten diren kartel, testu eta agirietako edukietan. 6. Dirulaguntza jaso duten egitasmo, proiektu edo jardueretan genero-ikuspegia kontuan izatea, hau da, genero-identitate ezberdinen ezaugarri, baldintzak, nahiak eta beharrak kontuan hartzea, berdintasunerako ekintza eta helburu zehatzak txertatuz. 7. Genero-bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duten egitasmo, proiektu edo jarduerarik ez antolatzea (Adikzio prebentzioa eta indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzeko programak salbuetsita). 8. Hitzarmen honen baitan gauzatzen diren ekimen guztietan, euskararen erabilera bermatu eta sustatuko du, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak bideratuko ditu. Oro har, Udal Kirol Patronatuaren hizkuntza irizpideak bete beharko dira, eta bereziki zaindu beharko da erabiltzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aritzeko duten eskubidea. Ahoz, euskaraz egingo da lehen hitza, gero erabiltzaileak nahi duen hizkuntzan jarraitzeko aukera emanda, eta idatziz, gutxienez ele bietan egingo dira komunikazio guztiak. Haur, nerabe eta gazteekin, nagusiki euskaraz egiten saiatu beharko da. 9. Gizarteratzea eta integrazioa garatzeko beharrezkoak diren ekintzak izatea.	Ayuntamiento, y en las noticias mención de que ha sido subvencionado por el Patronato. 5. Hacer un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes en los contenidos de los carteles, textos y documentos que se elaboren con ocasión del fomento de proyectos o actividades subvencionadas. 6. Tener en cuenta la perspectiva de género en los proyectos o actividades subvencionadas considerando las características, condiciones, aspiraciones y necesidades de las distintas identidades de género, incorporando acciones y objetivos específicos para la igualdad. 7. No organizar proyectos o actividades que supongan discriminación directa o indirecta por razón de género (a excepción de los programas de prevención de las adicciones y de la violencia machista). 8. Garantizar y fomentar el uso del euskera en todas las iniciativas que se lleven a cabo en el marco del presente convenio, arbitrando las medidas y acciones que sean necesarias. Con carácter general, se deberán cumplir los criterios lingüísticos del Patronato Municipal de Deportes y se deberá cuidar especialmente el derecho de los usuarios a expresarse en la lengua oficial que elijan. Verbalmente, la primera palabra se hará en euskera, permitiendo luego que el usuario continúe en el idioma que desee, y por escrito, al menos todas las comunicaciones se realizarán en ambos idiomas. Con los niños, adolescentes y jóvenes, habrá que intentar hacerlo principalmente en euskera. 9. Dispone de las acciones necesarias para desarrollar la inclusión y la integración.
Zortzigarrena: Hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzarmen hau bertan behera geldituko da. Horretaz gain, ZUBI ONDO XAKE TALDEAri dirulaguntza osoa edo dirulaguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio. Horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzultzeko erabakia hartuko da. Ondoren aipatuko diren kasuak izango dira oinarriak bete ez izanaren arrazoi. Hori dela-eta, dirulaguntza kentzeko edo, premiazko bidez, dirulaguntza itzularazteko arrazoi izango	Octava: el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones contenidas en el presente convenio supondrá la extinción del mismo. Sin perjuicio de lo anterior, podrá procederse a la retirada total o parcial de la subvención a ZUBI ONDO XAKE TALDEA previa audiencia de la persona interesada, y en su caso, a la devolución de la cantidad percibida. Serán motivo de incumplimiento las siguientes causas. A estos efectos serán causa de revocación o de reintegro urgente de la subvención:

dira: 1. Eskaeraren datuetan gezurrak sartzea. 2. Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzea. 3. Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea. 4. Dirulaguntza eman den xederako ez erabiltzea. 5. Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak, edo hala badagokio, emakida egintzan ezartzen direnak ez betetzea. 6. Beste edozein xedapenen bidez oro har ezarritako betebeharrak guztiak ez betetzea. 7. Indarrean dagoen lege araudi guztia ez betetzea, batez ere Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 legea, lege hori dela bitarte debeku baita, besteak beste, pertsonen sexuaren araberrako bazterkeria klase guztia, zuzeneko nahiz zeharkakoa.	1. Falsedad en los datos de la solicitud. 2. La alteración de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la subvención. 3. No presentar en el plazo estipulado la documentación que se le había requerido. 4. No utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida. 5. El incumplimiento de las obligaciones establecidas en estas bases o de las que, en su caso, se establezcan en el acto de la concesión. 6. El incumplimiento de todas las obligaciones establecidas con carácter general por cualquier otra disposición. 7. El incumplimiento de toda la normativa legal vigente, en especial de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, que prohíbe, entre otras, toda clase de discriminación directa o indirecta por razón de sexo de las personas.
Bederatzigarrena: Hitzarmen honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.	Novena: La subvención objeto del presente convenio es compatible con aquellas otras subvenciones o pagos que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada, o bien directamente por particulares. En todo caso no procederá sobrefinanciación y, en tal caso, se procederá a la minoración de la subvención concedida hasta el límite máximo que corresponda.
Hamargarrena: Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak izango du hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko ardura. Patronatuak, besteak beste, honako hauek izango ditu kontuan, hitzarmenaren jarraipena egin ahal izateko: Hitzarmen honetan ezarri diren betebeharrak bete direla egiaztatzea. Dirulaguntza eman den xederako erabili dela egiaztatzea. Aurkeztu diren agiriak zein egindako gastuak justifikatzeko ordainagiriak benetakoak direla egiaztatzea.	Décima: El Patronato Municipal de Deportes de Elgoibar será el responsable de realizar el seguimiento del grado de cumplimiento del presente convenio. Para el seguimiento se tendrá en cuenta lo siguiente: Verificar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente convenio. Justificar la aplicación de la subvención a la finalidad para la que se concede. Comprobar tanto la documentación presentada como las facturas justificativas de los gastos realizados y los justificantes de pago.
Hamaikagarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta	Undécima: el presente convenio tiene naturaleza administrativa. En consecuencia, tanto la interpretación, modificación, efectos como las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse de la resolución del presente convenio serán de conocimiento de la jurisdicción contencioso-administrativa, de



Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoari jarraiki. Hitzarmen honetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako, Elgoibarko Udalaren eta Bere Ardurapeko Autonomiadun Erakundeen Diru Laguntzei buruzko Ordenantza Nagusia aplikatuko da. Halaber, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra izango da kontuan baina Emakume eta Gizonezkoen berdintasunera 4/2005 Legea ere.	conformidad con lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En lo no previsto expresamente en el presente convenio, será de aplicación la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos. Asimismo, se tendrá en cuenta la Ley 38/2003 General de Subvenciones y la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
Hamabigarrena: ZUBI ONDO XAKE TALDEAK, hitzarmen honen bidez zehazten diren dirulaguntzen onuradun den aldetik, PATRONATUAK eskaintzen dion babesaren berri eman beharko du, hitzarmen honen bitartez bideratzen diren ekintzen kasuan.	Duodécima: ZUBI ONDO XAKE TALDEA, como beneficiaria de la subvención que se detalla en el presente convenio, deberá informar sobre la ayuda que le ofrece el PATRONATO en todas las acciones que se instrumenten a través del presente convenio.
Eta bi alderdiok, ados daudela eta hitzarmenean jasotako guztia onartzen dutela adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dute.	Y en prueba de conformidad y aceptación con cuanto queda expresado firman ambas partes el presente convenio.

IÑIGO LOIOLA GARATE
ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA.-

MIKEL LEON REINARES
ZUBI ONDO XAKE TALDEA.-